

KOSTUEN EGITURA



Mugipay zerbitzu honek bereziki ez ditu kostu handiak ekarriko, aurreko puntuetan esan bezala aparatu sinplea da, gaur egungoak bezalakoak baina aldaketa batzuekin.

Hasteko, aparatu hauek egiteko enpresa batekin hitz egingo genuke, diru kantitate baten trukean hauek aparatuak egin ditzaten. Aparatuak egiteko kostua gaur egungoena baina pixkat handiagoa izango litzateke, aldakuntza batzuk dituelako, baina diru kostuak ez du bereziki aldaketa handirik nabarituko.

Bigarrenik, aparatuen barneko sistema finkatzeko eta sortzeko beste teknologia enpresa batekin hitz egin beharko genuke, hauek aparatuak prest daudenean sistema barnealdean jartzeko aparatuak funtziona dezan. Zerbitzu honekin kanbioen, eta diruaren sistema finkatu behar dute, eta ticket-aren funtzionamendua, beste guztia lehengo makinak zuen sistema berbera eramango du, beraz honetan ere kostuak ez dira handiak izango, pixkat igoko dira baina ez bereziki asko.

Bukatzeko, aparatuak egin ondoren, eta hauek sistema guztia barnean finkatuta eduki ondoren, autobusean jartzearen kostua bakarrik edukiko genuke faltan. Prozesu hau hasieran aparatua egin zuen enpresari eskatuko genioke, diruaren trukean baita ere. Gure zerbitzua Lurraldebus, Dbus, eta TSST jarri behar denez, kostu handien ekarriko diguna aparatuak autobus guztietan finkatzea izango litzateke.